

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak eta Euskadiko Kutzak hitzarmen bat izenpetu dute kreditua ekintzaileei eta mikroenpresei zabaltzeko

*Finantza-erakundeak xede horretarako 2 milioi euro jarriko du Nafarroan*

Viernes, 09 de marzo de 2012

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilari Lourdes Goicoecheak eta [Euskadiko Kutzako](#) lurraldeko zuzendari Francisco Javier Cortajarena Goñik, [hitzarmen bat](#) izenpetu dute gaur goizean ekintzaileei eta enpresa txikiei finantzaketa-lerroak zabaltzeko. Helburu horretarako, finantza-erakundeak 2 milioi euroko kreditu-lerro bat eman du.



Goicoechea kontseilaria eta Javier Cortajarena Nafarroako Gobernuaren eta Euskadiko Kutzaren arteko hitzarmena izenpetzen ekintzaileei eta enpresa txikiei kreditu-lerro bat zabaltzeko.

Helburua da, autoenpleguko proiektuak eta enpresa txikiak, autonomoen negozioak eta norberaren konturako profesionalen ekimenak abian jarri, sendotu eta zabaltzea.

Hitzarmen honen esparru honetan, [Nafarroako Enplegu Zerbitzuak](#) autonomo nahiz mikroenpresen finantzaketa-beharrak hautemango ditu, eta ekintzaileen informazio, aholkularitza eta prestakuntzako zereginak egingo ditu beren enpresa-proiektuari dagokionez, eta haien bideragarritasun-txostenak egingo ditu eskaerak Euskadiko Kutzara bidali aurretik eta, hala badagokio, kreditua emateko. Maileguzen zenbatekoa Euskadiko Kutzak ezarriko du operazio ezberdinen beharren arabera.

Eskatzaileak pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke eta finantzaketa-epea 60 hilabetekoa da, hautazko gabealdiko 6 hilabete barne, eta era berezian 84 hilabeteraino luza daitekeena. Kredituaren bermeak finantza-erakundeak aztertuko ditu kasu bakoitzean, eta operazio bakoitzaren arabera eskatuko dira, nahiz eta ezinbestekoak diren enpresa-plana eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bideragarritasunaren aldeko txostena ematea.

Goicoechea kontseilariak baieztatu duenez, kontua "finantzaketa sutatzea eta hura ekintzaileei errazten laguntzea da, eta negozio berriak abian jartzen laguntzea enpleguaren sorrera eta sendotzea sustatzeko

xedearekin".

Euskadiko Kutxako lurraldeko zuzendari Javier Cortajarenak adierazi duenez, "Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako akordio hau berme bat da, eta era berezian aberasten du Euskadiko Kutxak ekintzaile nafarrei eskaintzen ari zaien laguntza".

### **Euskadiko Kutxa**

[Euskadiko Kutxa](#) gizarte-ekonomiaren enpresa bat da, kreditu-kooperatiba bat, eta bere oinarrizko helburuen barnean, enpleguaren sorrerak leku aipagarri betetzen du, [Mondragon Korporazio](#)aren bidez, 4.000 pertsona baino gehiago lanean dituen 14 enpresa ditu, eta foru-erkidegoaren enplegu guztiaren % 1,5a da.

Euskadiko Kutxak autoenplegua indartu eta sustatzen du enpresa-ekimenei lagunduz eta aukera-berdintasunaren alde eginez. Gainera, langileen artean enpresa-kultura ereiteko lan egiten du, laguntza egokiarekin bere proiektuaren baitan lanpostu berriak sortuko dituztela susmatuz.